

Gogorik ezak pentsamendua akabatu(ko) ote du

 Begizolia | © 2025-08-03 09:25



Reset

Aitziber Etxeberria

Erein, 2025

Soako bat gibelera

Aitziber Etxeberriaren *Tango urdina* eta *Olivetti* liburuak iruzkindu nituen behiala. Idazlearen lau narrazio-eleberrietatik bi. Besteak beste, haxe adierazi nuen: lehenengoan eta azken lanean ezaugarri desberdin nabariak ez izatea. Hala berean, “kritika”-k kasu gutxi egin izana. Azken iruzkinean idazlearekiko nire jarrera paternalistaz desenkusatzea nintzen. Iraganak iragan, beude haiek han. Betoz ele berriak.

Iritzi bat *abiaburuan*

Hainbat ele post scriptum arbuiagarrirako laga barik, hona aitorten bat: usteak uste, *Reset* eleberria aurreko bere beste liburuen aldean ezberdina da. Idazlearen proposamen eta ahalegin berria da. Eta ez soilik eta baitezpada, eleberri honetan mundu distopiko bat deskribatzen duelako. Baizik eta tranan eta narrazioan eleberrigileak egin duen ahalegin nabarmena dela eta.

Prologoa

Iruzkin honen prologoaz ari naiz, *Sar hitza* delakoaz. *Reset* nobelak ez dauka prologorik, epilogoa bai ordea. Kontu bitxi bat, bidenabar: zuzenek *prologoa* hitza gorritz azpimarratzen digu, epilogoa, aldiz, ez. Elhuyar hiztegian ez da lehenbizikoa ageri, bigarrena bai, ordea. Bixia ezta? Ez da zientzia fikzioa. Alabaina, zientzia teknologikoak zur eta lur uzten gaitu sarritan. Edo halatsu utzi ohi nau nerau. Tira, bidenabar erranik, halatsu utzi nau *Resetek*.

Formaz eta estetikaz

Edukiari buruz jardun aitzin, haren formaz edota estetikaz ele sorta bat: nobelak bi atal ditu. Lehenak 21 zatitan emana: 1-21. Bigarrenak: 22-47. Zuk zeuk egin kontu. *Apirilaren 17an* datatuta dago. *Alegiar*ioaren 46. *urtea* da. Kontutxo bat: ez dut nobela bi ataletan bereizteko arrazoirik kausitu.

Eskaintzaz bestera, *Epilogo*a dauka. Errana jada. Baita esker oneko hitzak ere liburuaren editorearentzako.

Liburuaren beraren estetika hotza da. Nobelaren beraren premonizioa, hain ziur. Kasu baina, hotz horrek erretzen baitu. Adierazi nahi dudana, nolabait, agerikoa duzu liburuaren azalean. Horra hor planeta hotz-beroa! Gurea, naski. Hori mundu epel-txepela!

Hala berean, garrantzizkoa hau ere: eleberrian sartu aurretik, Leonard Cohenen *The Partisan* olerki-kantaren boskarren ahapaldia duzu. Euskarara ekarrita:

O, haizea, haizea / Hilobietatik haizeak jotzen du / Askatasuna laster irisiko da / Itzaletik aterako gara orduan

Nobelako lehen lerroa, berriz, haxe: *Haizea egurrezko leiho zaharren artetik irristari dabil, jostari; ez du miatu gabeko zirrikiturik uzten*.

Edukiaz mamiaz funtsaz

Baga: iruzkingile (h)onen zereginetako bat irakurleak nobelara erakartzea den aldetik, ontsalaz, sinopsia moduko bat izkiriatu behar nizuke. Nekeza zait, benaz. Behar izatera, baduzu sinopsi bat liburuaren kontrazalean. Segidan idatziko dudanak liburua eskuratzera eramaten bazaitu, ni pozarren.

Biga: eleberri honen hitz, kontzeptu edota ezaugarri batzuk aldatuko ditut hona, berean sartzen lagundu aldera: Salpa. Salpa eskumuturrekoa. Burtsala. Holograma. Lan Eremu Espezializatua. Zaharkin Eraikina edo Biltegia. Klaustro Zuria.

M eremuko gizarte teknologikoa.

Ahapaldi bi :

- Kartzela sistemak gaizkilea zuzendu eta birgizarteratzea du helburu.
- Mila esker, Eirwyn, adimen artifizialez sorturiko laguntzaile adimentsu birtuala ez banintz, nirekin ligatu nahian ari zarela pentsatuko nuke.

Zilarrak eta *Karbonikoak* bestalde edo halaber, horiek “izakari” bizidunak izaki. Bizidunak edo.

Higa: pertsonaia asko ari dira nobelan. Horietako batzuen izenak, hasieran, akronimoak dira. Adibidez: TEN01 eta ZIP65 izakarien izenak dituzu. Humanoak edo. Edo. Beste izenak ezaguna(goa)k ditugu. Herri edota nazioetako pertsonen identitateen izenak. Gure planeta honen eboluzioaren adierazgarriak nonbait. Hala nola, Fionn, Harria, Naura, Mara, Noel edota Eirwyn.

Laga: pertsonaien artean ibilki naiz, nahas-mahasean, anabasa batean. Irakurtzeko nire gabezia izan daiteke, besterik gabe. Irakurle balizkoa zaren hori lagundu aldera diot, diotsut. Narratzailearekin arazoak izan ditut, hori ere nire muga izan daiteke. Usteak uste, honatx biren izenak: Naura eta Harria. Baliteke gehiago izatea.

Boga: baliteke, bistan da, nik aipatu izaki-izate adierazle horiek baino aise gehiago izatea. Berbarako, bi gehiago, arruntak: sistema eta erakundea.

Nobelaren izakiak kontingenteak dira. Izaki kontingentea ez da berez ari, beste batez ari da. Horrela, izan daiteke eta ez izan, ez da zertan izan, alegia. Alegia aroan gaudenez gero, diot. Diotsut.

Sega: alegia, *Alegiar*oaren 46. *urtea* da. Idatzia jada. Alegien aroa, naski. Alegia ote?

Zai, zoi, bele arma tiro pum!

Nobela nola iruzkin hau zenbakiak medio antolatzen hasia naiz. Ez dut nobelako bi ataletako zenbaki adina behar, halarik ere. Nire armak desarratzeko unea heldu zait.

Premisa bat: nobela irakurtzen hasia, hainbat bider ikusita dudan Ridley Scotten *Blade Runner* filma eskaini du telebista-kate-zenbatezinezkoen kanal batek. Gauean eskaini ere. Egunaren argitan nekez murgilduko nintzateke film horretan. Vangelis-en musika lagun, ezaugarri bat: filmaren nolakoa gure planetako etorkizuneko atmosfera halakoa.

Zergatik aipatu dudan hori guztia? Bada, *Reset* irakurri bitartean *Blade Runner* filmak zimiko-azkura sorta eragin baitit. Tarteka-marteka, xantza onez, *The Partisan* kantaren musikak gozatu dizkidanak.

Reset: birdoitu dezadan nire jarduna. Berrasieratu dezadan nire burua. Kokatu nadin, alegia.

Alegiaroan gaude, alegia. Errana dut hori ere jada. Alegia, nobelako hitzak ez dira ele zaharak, etorkizuneko eleak baizik. Ele terminologia kontzeptu eta burutapen *distopikoak* aurkitu(ko) dituzu, beraz, gezurrezkoak. Ez kexa ez arduratu ez kezka, behialako eta egungo munduak, disimuluzkoa, disimuluzkoa izaten jarraitzen du etorkizunean. Heldu den mundu teknologiko disimulatua duzu. Gure burua engainatzen segitzen dugu, engainatzeko moduak aldatu dira.

Sistema eta erakundeak berberak ez, baina berdinak edo antzekoak dira. Berauek kudeatzen dituzten “personak” ez dira berberak, baina berdinak edo antzekoak dira. Sistema eta erakundeak irauli nahi dituzten pertsonak edo “izakariak” ez dira baitezpada aldatu ere – nobelaz ari naiz, noski–.

Izakariak: izaki iraultzaile lausoak.

Reset nobelak mundu konplexu bat deskribatzen digu, ez horrenbeste *berria* ere, ez horrenbestez *berria*. *Berriak* zaharrak dira nobelan, *berriak berri* izanagatik ere.

Balorzioa

Iruzkinik iruzkin –taxuzko kritika egitetik urrun–, narrazioa berbez ongi dohatua begitandu zait, kontakizunerako idazlearen iaiotasuna begi-bistan dago. Zenbaitetan, kontakizunean ateraldi edota buru-kolpeak apur bat agerikoak egin zizkidan arren.

Okurrentziak, gaztelania-euskaratuan.

Nobela konplexua da, eta beharbada edo agian, nobela batek eskaini behar duen thriller amñiri bat gehiago falta du. Certaerek irakurlea ustekabean harrapa dezaten intriga eskas hatzeman dut. Suspense apur bat tenkatuago baten beharra sumatu dut.

Hona distopia hitzaren definizioa: giza alienazioa eragiten duten ezaugarri negatiboak diuen etorkizuneko gizarte baten irudikapen fikzioa da *distopia*.

Bidenabar: zuzenek hitz hori ere, gorritz azpimarratzen digu.

Nobela distopiko gutxi irakurri dut orain arte. Eta gutxi horiek ez zaizkit bereziki kitzikagarriak egin. Usteak uste, nago etorkizuneko “gure” munduak, berez, ez diola literaturari deus *bereziki berria* ekarriko.

Ez dut erran nahi, gure planetako paisaiak ez duela literaturarako espazio kitzikagarririk eskainiko etorkizunean –paisaiak ez du literatura egiten–, aitzitik, etorkizuneko izakarien pentsamendua lausoa izanen da, pentsamendu ezdeus horrek ez du literaturak behar duen *logosa* taxuz atxikiko.

Alegia, fikziozko alegia-aroaren garai horretan, mundu teknologiko digital analogikoak norbanakoon hitza mintzoa eta literatura suerte oro akabatu(ko) ditu. Berbarako, unibertsitateek ez dute hizkuntzaren zientzian beharrezko arreta ipintzen honezkero, sistema eta erakundeak “kontrolatzen” dituztenek ez dute aintzat hartzen literatura. Aitzitik, eurentzat, literatura traba da gainerako zientzien garapenerako.

Egungo literaturak *reset* baten beharra dauka. Edo *reset* askoren *resetak*.

Nago, etorkizuneko literatura, egungo literatura jada, literatura distopikoa bame, hotz jaiotzen dela. Alta bada, distopikoak, kasu, hotz izanagatik, gure arima (*) kiskaltzen du. Horra paradoxa! Horratx paradigma!

Paradigma: teoria edo teoria-multzoa, arazoak konpontzeko eta horien ezagutzan aurrera egiteko oinarria eta eredia ematen dituena, alabaina, nukleo-zentrala ezbairik gabe onartzen duen teoria duzu.

Azkenik: *Reset* nobela, jadaneko oraina den etorkizunaren arimarik gabeko literaturaren premonizioa da. Gogorik ezak pentsamendua akabatu(ko) ote du. Ez naiz horregatik, *Reset* gutxiesten ari. Gabeziak gabezia –irakurle honenak bame– etorkizuna den oraina interpretatzeko lagungarria duzu.

(*) arima elea gustuko ez duenarentzat, honatx beste bat: gogoa. Gureagoa, naski. *Gogoa* elean, arima edota espirituaz batera, gure pentsamendua baita izan.

Datesegit 

Iruzkinak

Utzi iruzkina:

Erabiltzaile izena

Eposta

Captcha

☐ I'm not a robot

reCAPTCHA

Privacy - Terms

Bidali

